

# Formula magikorik ez

Amaia Alvarez Uria

\*Gasteizeko Irakasle Eskolako ikaslea,  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
[amaia.au@ehu.es](mailto:amaia.au@ehu.es)

Hizkuntzen erabilera ez sexistari buruz hitz egiten dugunean, arazoaz jabetu ondoren, errezeta edo jarraibideak nahi izaten ditugu, gure zalantzak argituko dituen zerrenda magikoaren zain egoten gara. Gomendioak egon arren, ez dugu egoera eta esaera bakoitzari irtenbidea emateko horrelakorik izango beti. Feminismoak aukera desberdinak emango dizkigu arazo hauek konpondu ahal izateko, baina feminismoaren barruan joera desberdinak daudenez, helburu bera lortzeko bide bat baino gehiago eskainiko dizkigute. Testu honetan hiru adibide agertzen dira honi buruzko gogoeta egiteko.

Cuando hablamos del uso no sexita del language, después de hacernos conscientes del problema, solemos querer tener recetas o instrucciones, estamos a la espera de la lista mágica que vendrá a aclarar nuestras dudas. Pero aunque hay recomendaciones, no siempre las tendremos para dar salida a cada situación o expresión con la que nos topemos. El feminismo nos dará varias posibilidades para arreglar estos problemas, pero al haber diferentes tendencias dentro del feminismo, nos ofrecerán más de una opción para conseguir el mismo objetivo. En este texto aparecen tres ejemplos para reflexionar sobre lo dicho.

**Zer egin dezakegu hizkuntzen erabilera sexista eta androzentrikoaren aurrean?  
Badago gure galdera eta zalantzak argitzeko erantzunen zerrendarik? formula magikorik?**

Azken urteotan egin ditudan *Euskararen erabilera ez sexista* izena zuten tailerretan askotan errepikatu izan den galderatik abiatzen da artikulu hau: bertan parte hartu dutenek (hezitzaile, kazetari eta administrariak), sexismoa eta androzentrismoa zer diren jakin eta gero hauen aurrean neurriak hartzeko asmoa agertu dute, eta une horretan

etortzen da behin eta berriro galdera hori, ezinbestean: “Orduan... zer ipini behar dugu hemen? Zein da modu egokia?”

Galdera honek bi gogoeta sorrarazi dizkit. Bata jarrera pasibo eta akritikoaren biziraupena egiaztatzea (ikaslearen rolaekin guztiz lotuta dagoena) eta bestea galdera honi ahalik eta ondoen erantzuteko nahia. Lehenengo gogoeta eraikitzailea egiteko aprobetxatu eta gero, ekin diezaiogun bigarrena osatzeari, hortan datza eta, hasieran esan bezala, artikulu honen funtsa.

Hizkuntza baten *erabilera sexistari* buruz hitz egiten dugunean izenburu hau nahiko motz geratzen zaigu. Honekin eskubide urraketa bati buruz hitz egin nahi dugulako, diskriminazio egoera bat salatu eta gure pentsamenduaren oinarriak auzitan jarri. Hau egin ahal izateko feminismoak ematen dizkigun baliabide eta tresnak erabiltzen ditugu, baina mendeak iraun dituen eta gaur egun bizirik jarraitzen duen mugimendu honek bilakaera handia izan du, eta horren ondorioz, aurreko helburuak lortzeko bide desberdinak daude, olatuak deitu izan direnak, eta feminismoei buruz hitz egitera eraman gaituztenak egun.

Beraz, gai honetan hitz gakoak diren sexismoa eta androzentrismoa azaltzen hasiko gara (iruditeriarekin batera), feminismo motak edo olatu nagusiak aletzen jarraituko dugu eta amaitzeko, adibide praktikoko batzuk aztertuko ditugu aurretik azaldutakoaren argitan. Has gaitezen.

## 1) Sexismoa eta androzentrismoa

Tailerretan beti hasten gara oinarrizko kontzeptuekin: sexismoa, androzentrismoa eta emakume(ar)en irudia(k). Teoria ezagutu, ulertu eta gure barruan aurkitu ostean, praktikari ekiten diogu. Ikus dezagun, Victoria Sauren hitzetan, zertaz ari garen lehen bi kontzeptuez hitz egiten dugunean:

**Androzentrismoa:** gizona gauza guztien neurria da. Ikerketa batean ikuspegi maskulinoa bakarrik hartzen denean kontuan eta gero lortutako emaitzak banako guztientzako baliagarritzat jotzen direnean gertatzen da, bai emakume bai gizonentzat. Zientzialariek sistematikoki erabili izan dute alde bakarreko

ikuspegi hau Etnologia, Antropologia, Medikuntza eta Psikologia bezalako zientzia alor garrantzitsuen desitxuraketa ekarriz. Emakume zientzialari askok salatu dute errealitatea eraldatzen duen ikuspegi hau. (...) Virginia Woolf idazle ingelesak *Norberaren gela* bere liburuan hurrengoekin harrিতuta dagoela esaten du: 1.- gizonek euren buruei ematen dioten garrantziarekin eta eta euren buruen auto-gorespenekin, 2.- emakumei egotzitako akatsak, trebetasun eta gaitasun eza eta bestelako ezaugarriei buruz idatzitako lan kopuru altuarekin, eta 3.- aurreko hau egiteko egitean agertzen duten gorroto eta amorruekin (hain da nabarmena hau, azaldu nahi dutena bigarren maila batean geratzen dela). Amparo Morenok diskurtsoaren ordena androzentrikoa deitzen dio jokaera honi. Pierre Samuelek (...) dio egiaztatu duela historiak joera argia duela emakumeen rola txikiagotzeko, haien arrakastak goxatzeko eta baita faltsutzeko ere. (Sau 2000: 45-46)

**Sexismoa:** azpiratutako sexua (femeninoa) gutxiagotasun, menpekotasun, esplotazio egoeran mantentzeko patriarkatuaren magalean erabilitako moduen multzoa da. Bizitzaren eta harremanen eremu guztiak hartzen ditu bere gain, horren ondorioz, ezin dugu honen adierazpen eta eraginaren zerrendarik egin, adibideak eta erreferentzia batzuk eman ditzakegu soilik. (...) boterearen desoreka sexuala da sexismoa (S. Firestone) (...) Sexualitate femeninoaren errepresioa eta lanaren banaketa sexuala sexismoaren lehen bi adierazpenak dira (...) Gaur egunera arte heldu den sexu/generoen arabera banatutako hezkuntza ere sexista da; neskei josten eta otoitz egiten eta mutili letrak eta zenbakiak irakastetik unibertsitatean sartzea galera egin diren eraso sexistak kontaezinak izan dira. Hala nola, emakumea naturarekin lotzea eta biak menperatu behar direla justifikatzea edo gutxiagotasun mental eta intelektualaren prediku errepikakorra. Hizkuntza indarrean dagoen sexismo kulturalaren adibide ona da. Adjektiboak, esaera zaharrak, txisteak eta irainak ikerketa gutxi dituen eremukoak diren arren argi ikus daiteke oldarkortasun handikoa dela esparru hau. (Sau 2000: 257-259)

Hirugarren kontzeptua, emakumearen irudiak (edo iruditeri kolektiboa), Sauren hiztegian “Emakumea” sarreran eta “Irudikapenen sistema” sarreran topatu ahalko

genuke. Baina oso luze joko lukeenez bi hauen hitzez hitzeko itzulpena egiteak laburpen moduko bat egingo dugu bakoitzarekin:



**Emakumea:** entziklopedia eta hiztegieta gizonaren osagarri edo honi konparatuta agertzen zaigu (alderantziz ez, ordea). Gizonen begietatik begiratua izan da normalean eta bi muturretan kokatua: harrapaezina den ideal zerutiarra edo arbuatua den gorputz lurterra. Simone de Beauvoirrek emakumea gizonaren bestea dela esan zuen, bigarren sexua; gizona beti delako bata, subjektua, protagonista, erreferentzia; gizona badela erakusteko dago emakumea. Biologikoki eta fisiologikoki emakumea ez da, Sauren ustez, gizonaren emea edo bestea, izatekotan, lehena, jatorria, oinarrizko sexua edota lehen sexua da; gizaki guztiak beraregandik gatzelako, denok daukagulako ama eta espeziearen bilakaeraren hasieran enbrioi guztiak emeak zirelako. Datu honek lurretik botatzen ditu nagusitasun maskulinoaren diskurtso desberdinek garatutako proposamenak: emakumea gizon inperfektua dela esaten dutenak (Adan eta Ebaren mitoak, kasu). Emakumea benetan menpekoa izan balitz, otzana eta esklabu izateko jaioa, ez lirateke existituko pentsamolde hau indartzeko gizonen sortutako hainbeste mito, leienda eta behartzeko lege. Emakumea ‘sexu ahul’ moduan definitzea mendeetako gatibualdiaren erakusgarria besterik ez da. Gaur egungo emakumeek oraindik dauzkate zailtasunak bere burua aske eta ez ‘besteentzat’ ikusteko, pertsona moduan irudikatze. (208-215)

**Irudikapenen sistema:** gizakiok gure burua eta mundua hitz eta irudien bidez izendatzen dugu. Zentzumenekin hautematen dugunaz haratago doan ordena edo

eskema imaginarioa da hau, harreman sareak harrapatu eta patriarkatua osatzen duena. Diskurtso erlijioso, zientifiko eta artistikoen bidez pertsonak, gertaerak, itxaropenak eta beharrak baliostatzen eta kokatzen ditu plano biologiko, kultural eta sinbolikoan. Hortaz, menperatze/menpekotasun harremanak daude gizon /emakumeen artean. Pertsonak, lanbideak eta ikasketak sexu/genero banaketaren arabera sailkatzen dira. Irizpide, arau eta ohitura multzoa da, helburu jakin bat dutena, hitzezkoa, plastikoa eta musikala dena (janzkera, agurrak, umorea, osasuna, gaztaroa, ekonomia,...), etengabe berregiten doana. Gauzak ezagun bihurtu eta ikusgarri egiten ditu. Jendartean ordena sozial legezko hau bermatzeko bide ugari ditu (hedabideak, esaera zaharrak, ...). Gizonek irudikapen gehiago eta anitzagoak dituzte eta honen ondorioz zentraltasuna eta protagonismoa lortzen du kontzientzia kolektiboan, emakumea laguntzaile edo osagarriaren lekuan utzita eta identitatez hustuz. (255-260)<sup>1</sup>

Laburbilduz, androzentrismoa izango dugu gizona subjektu aktibo eta emakumea objektu pasibo direnean, emakumea desagertzen denean edo negatiboki bakarrik agertzen denean. Sexismoa emakumeenganako eta feminitatearen gutxiespena, mespretxua da, emakumeei gehiegikeriaz (kortesia edo ‘zaldunkeria’) ala gabezia (ikusezin bihurtuz) hitz egitea.

Emakumeen iruditeria tradizioak ekarri digu eta ezaugarri femenino eta maskulinoetan aurki dezakegu. Hortik aterko dira esteroetipoak, rolak, sinismenak eta aurreiritziak. Azken finean, hiru hauekin mundua eta pertsonak ezagutzen eta ulertzen ditugu, ikasitakoa ‘normala’ eta ‘logikoa’ dela pentsatuz.

Lehen atal honi esker antzeman ahal izango dugu ‘arazoa’; testuetan eta irudietan ‘hobetu’ daitekeena topatu; jakin non dagoen eskubide urraketa eta diskriminazioa. Baina behin aurkituta zer egin dezakegu? Erantzun bakarra dago? Jarraian ikusiko dugu ez dela hain erraza kontua.

---

<sup>1</sup> Itzulpenak nireak dira eta erabilitako iturria hau da: *Androzentrismoa* eta *sexismorako* Sau, Victoria. (2000). *Diccionario ideológico feminista*. 1. liburukia. Bartzelona: Icaria. (1981) eta *Emakumea eta errepresentazio sistemarako* Sau, Victoria. (2001). *Diccionario ideológico feminista*. 2. liburukia. Bartzelona: Icaria.

## 2) Feminismo motak eta euren jokaerak hizkuntzarekin



Mari Luz Estebanen lana<sup>2</sup> irakurri genuenean feminismo moten sailkapen orokor bat eman zigun ezagutzera. Bertan, Elizabeth Groszek<sup>3</sup> feminismoak lau talde handitan banatzea proposatzen du: Berdintasuna, Diferentzia, Konstruktibista eta Postestrukturalista.

Berdintasunaren olatuak emakumeak pertsona direla aldarrikatzen du eta gizonen eskubide berak dituela esan (planak eta legeak). Diferentziaren olatuak txokoratu diren ezaugarri femeninoak positiboki baloratu nahi ditu eta gorputzari arreta handia ipintzen dio (amatasuna eta sexualitatea). Olatu konstruktibistak sexua eta generoaren eraikuntza sozialari begiratzen dio eta esentzialismo biologikoa arbuiatu (hezkidetza eta jostailu hezitzaileak). Olatu postestrukturalistak gure pentsatzeko eta bizitzeko modua deseraiki eta auzitan ipini nahi du, errealitatea hitzen eta irudien bidez ezagutzen dugula diote eta ikuspuntu desberdinak daudela egia sortzeko (haragiztatutako subjektua eta binarismoa gainditzeko nahia).

Sailkapen hau ezagutu aurretik Julia Kristevak<sup>4</sup> egindakoa erabiltzen nuen. Aditu honek hiru atal edo korrante proposatzen ditu:

---

<sup>2</sup> Esteban, Mari Luz. (2004). *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

<sup>3</sup> Elizabeth Grosz (1994), *Volatile bodies. Toward a corporeal feminism*. Indiana university Press (lehenengo kapituluan)

<sup>4</sup> Kristeva, Julia. (1993). *Les Nouvelles maladies de l'ame*, Paris: Librairie Artheme Fayard.

1) Orden sinbolikoan sartzeko berdintasuna aldarrikatzea

(Berdintasunaren feminismoa deituriko joera edo korrontea)

2) Desberdintasun sexualaren izenean orden sinboliko maskulinoaren ukapena

(Diferentziaren feminismoa deituriko joera edo korrontea)

3) Maskulinoaren eta femeninoaren arteko dikotomia metafisikoaren ukapena

(Kristevak, besteak beste aldarrikatzen duena).

Antzekotasun handiak daude bien artean, berdintasuna eta diferentzia aipatzen dituzte biek, mugimendu feministaren hasieratik gaur arte mantendu diren bi olatu edo korrontek, eta azkenik, Kristevak orden sinbolikoa auzitan jartzen du hirugarren puntuan eta Groszek orden sinbolikoaren eraiketa kulturala azpimarratu eta gero, deseraiki egiten du.

Bi sailkapen hauek izango dira gure ikuspuntu eta metodologia hurrengo ataleko ariketa praktikoak aurrera eramateko eta artikulua honen hasieran planteatu dugun galderari erantzuna emateko.

3) Adibide praktikoak

Egia da badaudela gomendio sorta batzuk hitz eta esaera jakin batzuk ordezkatzeko baliogarriak direnak, nolabaiteko 'itzulpen lana' egiteko proposak direnak: hitz edo esaldi sexista edo androzentrikoa baztertu eta era ez-diskriminatzaile eta barnehartzailea ematen dutenak. Baina kasu guztiak ez dira argiak, ez dira 'automatikoki' egiteko modukoak.

Horrelako kasuetako bati begiratuko diogu orain. Horretarako, azken aldiaren gure inguruan agertutako hiru adibide izango ditugu aztergai: Kataluniako Hauteskundeetako iragarkia, Olentzero eta Mari Domingi eta Granadako Jardunaldi feministetan entzule batek beste bati esandakoa.

*Kataluniako Hauteskundeetako iragarkia*

<http://www.youtube.com/watch?v=DADsM7kdx7Y>

Kataluniako hauteskundeetan hiritarrak botoa ematera animatzeko alderdi politiko txiki batek iragarki 'polemiko' bat egin zuen. Bertan, emakume gazte batek botoa hautes-ontzian sartzean orgasmo bat izaten zuen.

Iragarkiak ez du salaketa publikorik jaso, baina horrelakoetan gertatzen denez, irрати eta telebistako tertulia batzuetan eta kafetegi eta tabernetako korroetan kontrako komentarioak entzun ahal izan dira. Iragarki sexista dela esan dute batzuek eta besteek ez dute horrelakorik ikusi. Hau ere ohikoa. Begiratu diezaiozun hurbilagotik.

Emakumea objektu sexual gisa agertu izan da betidanik iragarkietan (ikus gabonetako lurrinen iragarkiak, adibidez). Baina iragarkian agertzen den emakumea hiritar arrunta da, ez dute edertasunaren kanonaren irizpideen arabera aukeratu ezta arropa edo jokaera berezirik ezarri, edozein izan zitekeela iradokitzeke. Ez dituzte bere begirada edo gorputz atalak lehen planora eraman ezta su artifizialak piztu edo txoriak airean askatu orgasmoa izan duenean.

Emakumeari sexualitatea ukatu izan zaio eta sexual irudikatu denean gizonaren plazererako izan da (gizonen desioa asetzeko objektu sexual gisa berriro). Kasu honetan emakumea subjektu da (ez dago asetu beharreko gizonik han) eta plazera berarentzat da (berak asetzen du bere desioa).

Kritikatzekotan, koito edo sarketa sexuarekin berdintzea izango litzateke iruzkindu beharrekoa (bozka ontzian sartzean lortzen baitu plazera protagonistak). Ez baita hori emakumeek sexualitatea bizitzeko era bakarra.

*Olentzero eta Mari Domingi*





Orain dela urte gutxi (hiru?, bost ?) Olentzeroren irudiari Mari Domingirena batu zaio kantu batean galdua zegoen pertsonaia femeninoa berreskuratuz. Ikastetxeetan biak agertzen dira klaseetako materialean eta auzoetan biak joaten dira kalejiran abenduaren 24ko iluntzean. Baina, nola irakurri daiteke hau feminismo desberdinetatik?

Duela gutxi arte androzentrikoa zen ohitura batean emakumearen presentzia bermatu da, bi sexu/generoen arteko parekidetasun bermatuz eta usadio hau nolabait feminizatuz. Mari Domingiren agerpena diskriminazio positibo moduan ikus daiteke, hutsunea konpondu nahian egindako zerbait delako.

Baina ez du sistema heteropatriarkala auzitan jartzen, indartzen baino: hau egitean bikote heterosexuala da bultzaten dena, Mari Domingi Olentzeroren neskalguna delako, eta honek androzentrismoa indartzera dator azkenean, bigarren mailan jarraitzen duelako bikote hortako emakumea, protagonista Olentzero izaten jarraitzen duelako eta Mari Dominigi bere laguntzailea, osagarria.

Iruñerriko eskola batean erabaki dute, klasean Olentzero eta Mari Domingi landu eta gero eskolara Mari Domingi bakarrik etorriko dela aurten, usadio hau benetan feminizatzeke eta protagonismoa emateko pertsonaia femeninoari.

*Granadako Jardunaldi Feministetako iritzi kritikoa*



2009ko abenduaren lehen asteburuan Granadan Jardunaldi Feministak egin ziren. Bertan oso argi geratu zen belaunaldi desberdinetan feminismoa ez dela berdin bizi (2. atalean aipatu ditugun olatuekin lotu dezakegu baieztapen hau). Osoko bilkura batean entzule batek hizlariari galdera bat egin zion eta horrekin batera bere bizipena kontatu zuen adibide gisa. Gaztelaniaz aritu zen eta lehen pertsona zerabilenean maskulinoa erabiltzen zuen (*nosotros*, adibidez).

Beste entzule batek beranduago esan zuen, honek ere gaztelaniaz, urte asko generamatzala maskulino orokortzaile eta androzentrikoa gure hizkeratik baztertu nahian eta testuinguru horretan (feministen artean) hori erabiltzen entzutea oso mingarria zela berarentzat. Zer da hemen gertatu dena?

Minduta eta femeninoan hitz egin zuenak emakumeen ikusgarritasunaren alde egin zuen eta hizkuntza feminizatu nahian zebilen. Baina egungo errealitatea anitza dela kontuan hartzen badugu, maskulinoan hitz egiten duenaren motibazioa ezagutu behar dugu ondorioz atera baino lehen ; zergatik hitz egin du maskulinoan?

Bi aukera ikusten ditugu hemen. Bata, bigarren entzuleak dioena da: ikuspegi androzentrikoa duen maskulino orokortzailea erabili du horrela mintzatean. Baina bestea, eta kasu honetan gertatu zena, hurrengoa da: lehen entzuleak bere burua maskulinoan bizi du, transgeneroa da, biologikoki emakumea da, (medikuaren hitzetan), baina bere genero identitatea ez da emakumearena. Maskulinoarekin identifikatzen du bere burua eta horregatik erabili du marka hori berba egiterakoan.

#### 4) Ondorioak

Ez dago formula magikorik ezta mundua ezagutzeko eta interpretatzeko modu bakarra ere. Gaia oso konplexua da, errealitatea bezala, eta ikuspegi desberdinetatik heldu ahal diogu. Ez dago erantzun bakarra. Argi eduki beharrekoa helburua da, bide desberdinak ibili arren.

Helburua da pertsona guztiek eskubide berak izateko pausoak ematea; sexu eta generoen arteko bereizkeria eta hierarkiaren balorazio positibo eta negatiboarekin amaitzea, femeninoa baloratuz<sup>5</sup> eta binarismoa hautsiz; eta zapaldutako kolektibo identitario baten askapenerako mugimenduan parte hartzea praktika onak bultzatuz.

Xede hauek lortzeko eman beharreko pausuak hurrengoak dira: emakumeen presentzia eta irudi errealak anitza dela erakutsi eta hori lortze aldera estereotipoak apurtu; emakumeak egile eta eragile bezala aurkeztu, eta ez betiko irudi pasibo eta ahularekin jarraitu; indarkeria patriarkala eskubideen urraketa moduan ulertu eta ez erori hedabideek bultzatzen duten sentsazionalismo eta sinplifikazio joeran; begirada duala izan, eta beraz, benetan unibertsala, orekatua (ez androzentrikoa); hizkuntzaren feminizazioa egin, emakumeak ere ikusaraziz eta balio negatiboak positibizatuz; eta jaso dugun tradizio patriarkalak guztioi jaio ginenetik irakatsi diguna irudimenaren eta sorkuntzaren erabileraz hausnartu eta deseraiki, pentsamendu kritikoa sustatuz.

---

<sup>5</sup> Baita emakumeen maskulinitatea berpentsatuz ere. Honi buruz gehiago jakiteko jo hurrengo liburura: Halberstam, Judith. (2008). *Masculinidad femenina*. Madril: Egales.